




AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.com
945010505

Udaberria, esnatze bat da
Baina batzuentzat bakarrik:
Neguan hibernatu ez duenak
Ez du esnatu beharrik



GASTEIZKO JAIETAN ENTXOSNATU ZAI TEZ!!

Aurreko batean aipatu bezala txingurri lanak egitea tokatzen zaigu, krisiak eragindako beherakadak, aurrekontuan zulo estrukturala egin duenez gero. Zuloa estaltzen joateko txingurri lan berria dakarkigu, Gasteizko Andra Mari Zuriaren jaietako txosna gunean Arabako Bertsozale Elkartearen Txosna jarriko dugu.

Abuztuaren 4tik 9ra, arratsalde partetik goizaldeko ordu txikitara bitartean, Gasteizko Herri mugimendurekin Entxosnatuko gara. Bertsozaleen inguruko ekintza bereziren bat ere prestatzen gabilta jai giro honetan gozatzeko.

Hori bai bazkide, zure laguntza ezin bestekoa izango da zerbitzatze eta bestelako lan txandak ondo antolatzeko. Beraz prest zaudeten horiek joan izena ematen araba@bertsozale.com

e-posta helbidean edota 688616531 telefono zenbakian.

Izango duzue informazio gehiagoren berri aurrerantzean.



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera

Argitalpenaren laguntzaileak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Apirilaren 5ean, Agurainen, kezkatuta?

Agurainen Kuadrilla artekoaren megajaian guztiok jai giroan geundenean, Oier Suarezek (Arabako Bertsozale Elkartearen Sustapen arduraduna) kezkatuta igaro zuen eguna.

Egia da eguna goibel samar hasi zela. Eszenatokia, bazkaria, txosna... dena montatuta zegoen Andramari plazako antzinako aterpeetan. Baina eguna hobera egin zuen... Eguzkia atera zen... Eguerditik aurrera egun zoragarria izan zen.

Baina Oier Suarez ezin gozatu, ezin lasai egon, kezka nagusi, ansietatea, haize falta...

Ezin alaitu pasatu zuten eguna elkarteko kideek eta Lautadako bertso-eskolakoek.

- Baina zer da, lana?



Oier: - Ez.

- Tripako mina? Bixamona? Maitasun kontuak?

Oier: - Ez, ez. Ezetz.

Bazirudien ezin zuela hitzak ipini bere kezkarri.

Unai Mendibil (Aiaraldeko ordezkaria Arabako Bertsozale Elkartearen zuzendari-tzan) saiatu zen alaitzen. Bere estrategia guztiak erabili zituen alaitzeko asmoz, baita bere garagardoaren erdia eskaini ere, baina ezin. Ander Solozabalek dagoeneko ez zekien zer egin. Saiatu zen baina ezin. Sergio Canok (Lautadako bertso-eskolakoa) bere bonbo maitagarria eskaini zion. Baina ezta hori ere ez.



Oier Suarezek kezkatuta jarraitzen zuen. Ekaitz Samaniegoren bertso-sorta kantatu ondoren behin arnasa hartu zuen. Bazkaria bukatu ondoren bi aldiz arnasa hartu zuen. Eta bertso-punk bukatu ondoren hiru aldiz arnasa hartu zuen eta aurpegia guztiz aldatu zitzaion. Saltoka, brinkoka hasi zen eta oihuka egiten zuen BUKATU DA, BUKATU DAAAAA.



Eta orduan aitortu zigun zein zen bere kezka.

Oier: - Eeee, nola ez naiz egongo kezkatua? Imajinatu Samaniegoren sorta kantatzen ari garenean erortzen dela ohol zaharrez egindako aterpe hau... Edo bazkaltzen ari garenean erortzen dela teilatu hau... Edo bertso-punkaren distorsioarekin erortzen dela teilatua. Teilatu hauen azpian daude Arabako bertsolaritzaren nukleoaren kide guzti-guztiak! Imajinatu ze desastrea. Imajinatu "Ni un berso más" Elkartekoek atentatu bat egiten dutela eta denak akatzen dituztela. Arabako bertsogintza hilda! AKABO ARABAKO BERTSO-LARITZA!!! 30 urte hauetan lortutako guztiak. Ni naiz Arabako Sustapen arduraduna!! Zer egingo nuke denak hilko balira?

Baina Oier Suarezek ez zekien teilatuak eroriez gero ez zela egongo dena galduta. Arabako bertsogintzaren kide guztiak ez zeuden Agurainen. Ez, bazegoen bat etorri ez zena: Manex Agirre falta zen, Aramaion zegoen, etxean, kalenturarekin gaixorik. Sustapen arduradunak ez zekien hori. Arabako bertsolaritza bere errautsetatik ere birjaioko litzateke bigarren aldiz. Arabako bertsolaritza bietan!

Txiropeterus Eskolartekus bazetorrenk!

Horrek oinak buruan zeuzkink!

IXX. Arabako Eskolarteko Bertsolari topaketak bazetozenk! Arabako bertsolari haur eta bertsolari gazteak badatoz Arabako bazterrak bertsoz nahastera. Aurtengoan xaguxar baten eran hegan, irudimenari hegalak jarri eta eskolartekoaren kobazuloan murgilduko gara maiatzean zehar Araban.

Lau topaketa ezberdin burutuko dira, Arabako geografia zabalean zeharreko lau kobazulo ezberdinetan. Gasteizen, Armentia Ikastolan, maiatzaren 9an; Lautadan, Zaldudonon, maiatzaren 10ean; Gorbeialdean, Aramaion, maiatzaren 17an; eta Mendialdean, Kanpezun maiatzaren 24an.

Eta oinak buruan jarrita Eskolartekoari amaiera Legution emango diogu, maiatzaren 31an. Arabako haur eta gazteen Bertso Eskolan festa handia eta 14tik gorakoen finala ospatuko da.



Kimu berriak Espejo eta Sarriako barnetegietan

Apirilaren 22tik 24ra bertsolariño berriak konkistatzen aritu gara, udaberriko eguzki izpiñoak (eta izpiñoak diot euri tantotzarrak ez aipatzearren...) atera eta sugandilak bezala han abiatu ginen Sarriara, Gorbeialdeko 17 lagun eta Espejora, Aiaraldeko 58 lagun, tente eta eta urdin gozatzeko prest!

Kanpo klimak gehiegi lagundu ez bazuen ere, gure barneko bertsolariñoa loratzea ez zitzaigun asko kosta eta horretarako laguntza ederra izan zen Oskar Estanga gonbidatu bereziaren bultzadañoa. Kantu ederrak loratu genituen eta 2014ko Euskal Herriko Bertso Udaleku eta barnetegiko abestien diskari lehen aleak eskaini genizkion.

Hiru egun eder pasata, kantu, dantza, jolas, irri eta txantxa jolas denak amaituta etxera buelta egiteko garaia heldu zitzaigun, datorren urtean gehio!!ño!!



ZERNAHI:



OOOOOOOOOOOOOOOOOOH heu ere jausi haiz Perea sisters-en objektibo-pean. Begiratu, begiratu ondo erdi-itxitako begi eskrutatzaile horiei. Nola deskribatu: ezer eskapatzen ez zaien bikote zorrotza, Arabako bertso-mugimenduaren ahizpa handiak (granhermanoa Villabonan zagonk, klaro), hegazti-begiradarekin sortu berri diren eta sortzeaz dauden txorikumeen zaintzaile gozoak.

P.D.: Noski, argitu beharra zagonk ondoan doan argazkia Kuadrilla artekoaren azkeneko festa-eguneko ordu prudentzial batean ateratakoa dela; zuzen baitaude protagonistak, zuzen baitago kamera. Esan beharrik ez zagonk argazki hori ez litzatekeela posible gaueko ordu txikitán, orduan hasten baitunk begirada okertzen, katarata-sentsazioa irisetan, lausotasun arraro bat betile-artean. Zorionez (bai, zorionez) horren lekukotza duen argazkirik ez zagonk.

AGENDA

Izan gai-jartzaiile TAILERRA

Maiatzak 10, larunbata,
Gasteizko Amaia Zentroan



10:30-12:00
Saroi Jauregi
(gai-jartzaiilea)
Lagun arteko saioak:
bazkariak, tabernak...



12:15-13:45
Onintza Enbeita
(bertsolaria)
Gaiaren trataera,
bertsolariaren aldetik

Sarrera dohainik. Izena eman: araba.sustapena@bertsozale.com

www.bertsozale.com/araba

Laguntzailea:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Antolatzailea:



arabako
bertsozale
elkartea

2014-05-15 Gasteiz, Hitzaldia

"Bertsolaritza: gorputzak, gorpuzkerak, gorputzaldiak" hitzaldia Ordua: 19:30
Lekua: Ignacio Aldecoa Kultur Etxea Parte-hartzaileak: Uxue Alberdi Antolatzaileak: Ignacio Aldecoa Kultura Etxea

2014-05-17 Ondategi, Bertso-zahar jarriak

"Tximela kapitainaren izarrak" emanaldia Ordua: 22:00 Lekua: Zigoitia aretoa
Parte-hartzaileak: Joseba Tapia Antolatzaileak: Zuiako Udala